

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

16/2018 Mozioa, martxoaren 7koa, emakume eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko martxoaren 7an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

16/2018 Mozioa, martxoaren 7koa, emakume eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Diputatuen Kongresuari eskatzen diote interes eta presa handienarekin izapidetu dezala emakume eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunaren lege-proposamena.

2. Arabako Batzar Nagusiek instituzio eskudun guztiei eskatzen diete jarraitu dezatela emakumeek lan-arloan pairatzen dituzten diskriminazioak gainditzeko ekintzak bultzatzen, eta bereziki soldata-arrakala gainditzeko neurriak.

3. Arabako Batzar Nagusiek instituzio eskudun guztiei eskatzen diete aktiboki parte hartu dezatela eragile sozialekin batera soldata-arrakala gainditzeko eta berdintasun-planak ezartzeko neurriak adosteko eztabaida sakon batean, indar berezia eginez enpresa txiki eta ertainetan.

4. Arabako Batzar Nagusiek Emakunderi eskatzen diote ezen, berdintasun-politika publikoak sustatzeko ardura duen organismoa den heinean, bere plangintzan jaso ditzala soldata-arrakala deusezteko bidean aurrera egiten jarraitzeko neurriak dituzten diagnostikoak eta gomendioak.

5. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, Lan eta Justizia Sailetik, soldata-arrakala eta lan-munduan diren beste diskriminazio batzuk gainditzeko ekintzak bultzatzen jarraitu dezala, Laneko Ikuskaritza eta Osalanen bitartez.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA